

## TOKI ADMINISTRAZIOA

3

## ADMINISTRACIÓN LOCAL

**PASAIKO UDALA****Errentak***Iragarkia*

Udalak 2020ko abenduaren 18ko udalbatzarrean hasierako onarpena eman zion Ondasun Higiezin gainerako Zerga ordaintzeko diru-laguntzak arautzen dituzten oinarrien aldaketari; jendaurrean egon dira oinarri horiek eta alegaziorik aurkeztu ezenez, erabakia behin betikotzat jotzen da, eta osoa ematen da argitara, Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legeak bere 70.2 artikuluan adierazten duena beteaz.

Administrazio-bidean behi-betikoa den akordio honen aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiaren Administrazioarekiko Auzietako Salaren aurrean, iragarkia argitaratzen den hurrengo egunetik hasi eta bi hilabeteko epean.

Hala ere, alde aurreko izaeraz, Udal honen Osoko Bilkuraren aurrean aurreko berraztertzeko errekurtsua aurkeztu ahal izango da, hilabeteko epean, iragarkia argitaratu eta hurrengo egunetik hasita. Kasu honetan ezingo da administrazioarekiko auzietako helegiterik aurkeztu berraztertzeko errekurtsua erabaki arte edota presuntziozko ezespina eman arte.

Testu osoa [www.pasaia.eus](http://www.pasaia.eus) Udaleko web orrian jarriko da «Udala: Arauak eta Ordenantzak: Dirulaguntzaren Araudia» atalean, iragarki hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu ondoren.

**HITZAURREA**

Pasaiako Udalak, herritarren zerbitzura dagoen erakunde publikoa den heinean, gizarte- eta ekonomia-arloko neurrien politika bat garatzeko premia ikusi du, haien egoera sozioekonomikoagatik babesgabezia handia duten gizarte-taldeei zuzendutakoa.

Ildo horretan Pasaiako Udalak 2009ean onartu zituen ondasun higiezin gainerako zerga ordaintzeko diru-laguntzak emateko oinarriak; ondoren, oinarri horiek aldatu ziren, eta Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu ziren 2012eko apirilaren 20an eta 2018ko otsailaren 13an.

Orain oinarri arautzaile horien alderdi batzuk aldatu nahi dira, egungo gizarte-errealitatera egokitzearen, betiere, udal baliabideak bidezkoen den moduan banatzeko, eta ahulenen egoera ekonomikoa neurri batean arintzeko, eta erakundeen jarduna hemen Ondasun Higiezin gainerako Zergan zehazturik.

Onuradun izaera lortzeko betekizunen artean, arau aldaketa honetan zehazten da dirulaguntza eman ahalko zaiela dependentziagatik laguntza eskatzen duten etxebizitzan ez baizik eta beste lekuren batean erroldatuak dauden eskatzaileei.

**AYUNTAMIENTO DE PASAIA****Rentas***Anuncio*

Habiendo sido sometido a información pública el acuerdo adoptado por el Pleno del Ayuntamiento en sesión celebrada el 18 de diciembre de 2020 de aprobación inicial a la modificación de las Bases reguladoras para la concesión de subvenciones para el pago del Impuesto sobre Bienes Inmuebles, sin que haya sido formulada alegación alguna, se eleva el acuerdo a definitivo, procediéndose a la publicación íntegra de las bases en cumplimiento de lo dispuesto en el artículo 70.2 de la Ley 7/85 de 2 de abril, Reguladora de las Bases de Régimen Local.

Contra el presente acuerdo, que es definitivo en vía administrativa, podrán interponerse recurso Contencioso-Administrativo ante la Sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco en el plazo de dos meses contados a partir del siguiente día al de su publicación.

Ello no obstante, con carácter previo, podrá interponerse, recurso de reposición ante el Pleno del Ayuntamiento en el plazo de un mes, contado desde el día siguiente al de la publicación del presente anuncio. En este caso, no podrá presentarse recurso contencioso-administrativo hasta la resolución del recurso de reposición y hasta su desestimación presunta.

El texto íntegro estará disponible en el apartado «Ayuntamiento: Normas y Ordenanzas: Normativas de Subvenciones» de la web municipal [www.pasaia.eus](http://www.pasaia.eus) tras la publicación de este anuncio en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa.

**PREÁMBULO**

El Ayuntamiento de Pasaia, como Institución Pública al servicio de la ciudadanía, se ha planteado la necesidad de desarrollar una política de medidas de carácter social y económico dirigida a aquellos grupos sociales que, por sus circunstancias socio-económicas, resulten más indefensos.

En este sentido, el Ayuntamiento de Pasaia en el año 2009 aprobó las Bases Reguladoras para la concesión de subvenciones para el pago del Impuesto sobre Bienes Inmueble que posteriormente fueron modificadas y publicadas en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa el 20 de junio de 2012 y el 13 de febrero de 2018.

Ahora, se pretende la modificación de algunas cuestiones puntuales de las Bases Reguladoras para adecuarlas a la presente realidad social, siempre con el objeto de distribuir más justamente los recursos municipales y de intentar paliar la situación difícil en la que se encuentran los económicamente más débiles, concretándose aquí, la actuación institucional en el ámbito del Impuesto sobre Bienes Inmuebles.

En los requisitos para obtener la condición de persona beneficiaria se regula en la presente modificación normativa que se podrá conceder la subvención a aquellas solicitantes que estén empadronadas en otro lugar distinta a la vivienda por la que solicita la ayuda por razón de dependencia.

Era berean, bizikidetz-unitate bateko kideak Pasaia Udalarekiko zerga-betebeharretan egunean daudela jotzen da haiek ordainketa-zatikatzeara onartua dutenean, eta zatitutako kuotak ordaintzen ari badira.

Bestalde, zerga-betebeharretan eta Gizarte Segurantzarekin egunean daudela egiaztatzeko eginbeharretik salbuesteko aukerak arautzen dira, dirulaguntza-eskatzailak diru-sarrera mugatuak dituztelako, egoera ekonomiko zailean daudenez gero.

Dirulaguntza emateko kontuan izan beharreko sarrerei dagokienez, haiek egiaztatzeko xehetasuna ezabatzen da eta urteroko deialdiak zehaztuko du haiek nola zuritu behar diren.

Azkenik, prozedurari doakionez, ebazpena jakinarazteko modua aldatzen da.

Segurtasun juridikoagatik, oinarri arautzailearen testu osoa ekarri da, egindako aldaketak barne hartuta.

Azkenik, ez da beharrezkotzat jotzen duela gutxi administrazio-prozedura erkidearen oinarriko legeriak ezarritako aurretiazko kontsultaren izapidea jarraitzea; izan ere, batetik, araudi-proposamen honek gaiaren alderdi batzuk aldatzen ditu, eta beste alde batetik, ez du eragin garrantzitsurik jardura ekonomikoan, eta ez die jasotzaileei betebehar garrantzitsurik ezartzen.

Oinarri arautzaileen aldaketa tokiko ordenantzak onartzeko prozeduraren arabera egin behar da, eta prozedura hori Toki Araubidearen Oinarrien apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 49. artikuluan arautzen da.

*Ondasun higiezinaren gaineko zerga ordaintzeko dirulaguntzak arautzen dituzten oinarriak.*

**1. artikulua. Helburua.**

Araudi honen helburua da ondasun higiezinaren gaineko zerga ordaintzeko diru-laguntzak arautzea. Diru-laguntza jasoko dute, ondorengo artikuluetan ezartzen diren baldintzak betezen dituzten bizikidetz-unitateen titularrek.

**2. artikulua. Diru-laguntza jasotzaile izateko baldintzak.**

1. Ohiko etxebizitza duzuenagatik ordaindu behar duzuen zerga ari garelarik, zuek bizi zareten etxebizitzaren subjektu pasibo gisa ageri zaretenek diru-laguntza jaso dezakezue, baldin eta bizikidetz-unitate bateko kide izanik, guztion artean dituzuen diru-sarrerak taula honetan agertzen diren muga berran badaude.

Así mismo también se considera que la totalidad de los miembros de la unidad de convivencia se encuentran al corriente en el cumplimiento de sus obligaciones tributarias con el Ayuntamiento de Pasaia si tienen concedido un fraccionamiento y está abonando regularmente las cuotas fraccionadas.

Por otra parte, se regula la exoneración de la acreditación de estar al corriente en el cumplimiento de las obligaciones tributarias y con la Seguridad Social ya que los solicitantes de la subvención son personas con ingresos limitados, que se encuentran económicamente en una situación difícil.

En cuanto a los ingresos a tener en cuenta para la concesión de la subvención se elimina el detalle de la acreditación de los mismos y será la convocatoria anual la que determine la forma de justificarlos.

Por último, en lo que se refiere al procedimiento se modifica la forma de notificación de la resolución.

Por seguridad jurídica se reproduce el texto íntegro de las Bases Regulatoras con las modificaciones realizadas.

Por último, no se considera necesario seguir el trámite de consulta previa instaurado en recientes fechas en la legislación básica de procedimiento administrativo común, en la medida en que, por una parte, la presente propuesta normativa modifica aspectos parciales de la materia y por otra no tiene un impacto significativo en la actividad económica ni impone obligaciones relevantes a los destinatarios/as.

La modificación de las bases reguladoras está sujeta al procedimiento de aprobación de ordenanzas locales regulado en el artículo 49 de la Ley 7/1985, de 2 de abril, reguladora de las Bases del Régimen Local.

*Bases reguladoras para la concesión de subvenciones para el pago del impuesto sobre bienes inmuebles.*

**Artículo 1. Objeto.**

Es objeto de la presente normativa regular la concesión de subvenciones para el pago del impuesto sobre bienes inmuebles a las titulares integrantes de las unidades de convivencia que cumplan las condiciones que se establecen en los siguientes artículos.

**Artículo 2. Requisitos para obtener la condición de persona beneficiaria.**

1. Podrán adquirir la condición de beneficiarias las personas que figuren como sujeto pasivo del impuesto correspondiente a su vivienda habitual, que formen parte de una unidad de convivencia cuyos ingresos se encuentren dentro de los límites que se establecen en la siguiente tabla:

Kideak / Miembros	<= LGS/SMI	<= LGS/SMI + %10	<= LGS/SMI + %20	<= LGS/SMI + %30	<= LGS/SMI + %40	<=LGS/SMI + %50	<= LGS/SMI + %60
1-2	% 90 90 %	% 85 85 %	% 75 75 %	% 50 50 %	% 25 25 %		
3	% 90 90 %	% 85 85 %	% 80 80 %	% 75 75 %	% 50 50 %	% 25 25 %	
4	% 90 90 %	% 90 90 %	% 85 85 %	% 80 80 %	% 75 75 %	% 50 50 %	% 25 25 %
=> 5	% 95 95 %	% 90 90 %	% 90 90 %	% 85 85 %	% 80 80 %	% 75 75 %	% 50 50 %

**2. Taula hori aplikatzeko, hauek hartuko dira kontuan:**

**2. A los efectos de aplicación de la misma, se tomará en consideración:**

– Bizikidetzta-unitatearen kide kopurua zehazteko, Gizartera- zeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko abenduaren 23ko 18/2008 Legearen 9. artikulua.

– Ondorio beretarako, ekitaldiko urtarrilaren 1eko Biztanle- en Udal Erroldan dagoen informazioa, eskatzailea erroldatuta dagoen etxebizitzari buruzkoa (ohiko etxebizitza). Errolda egin ondoren izandako aldaketak banan-banan aztertuko dira. Sal- buespen gisa, eskatzailea egon daiteke erroldatua laguntza es- katzen duen etxebizitzan ez, baizik eta beste lekuren batean, betiere dependenzia duela egiaztatzen badu.

– Bizikidetzta-unitateko kideetako inork edo kide guztiek ba- tean ez dute jabetzan beste ondasun higiezinik izango, diru-la- guntza jasoko duen etxebizitzaz gain (ez dira zenbatuko eskaera egin duten etxebizitzaren eraikin berean trastelekutarako dau- den lokalak).

– Baldin eta ondasunaren titular bat baino gehiago badago eta jabeetarikoz batzuk bizikidetzta-unitateko zati ez badira, diru- laguntzaren zenbatekoa proportzionalki banatuko da laguntza eskatzen duten eta bizikidetzta-unitatearen zati direnek jabetzan duten portzentajearen arabera.

– Bizikidetzta-unitateko kideetako inork edo guztiek batean ez dute Pasaiaiko Udalarekin zorrik edo zehapenik izango exeku- zio-aldian. Nolanahi ere, euren zerga-betebeharretan egunean daudela joko da haien zorra zatikatua badago Kudeaketa eta Diru-bilketaren Ordenantza Orokorren arabera, eta erregular- tasunez betetzen ari badira zatikatutako kuotak.

3. Bizikidetzta-unitateko kide guztietatik inor ezingo da egon Dirulaguntzen Lege Orokorren 13. artikuluan, 2 eta 3 puntue- tan aipatzen diren debekuetan sartua. Betekizun horietatik sal- buesten da 13.2 e) idatz-zatia, zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzeari dagokiona, dirulaguntzak duen izaera sozialagatik. Salbueste hori zabaltzen da Lege beraren 34.5 artikuluan ezarritakoak dituen eraginetara.

### 3. artikulua. Diru-laguntzak zehazteko irizpideak.

1. Ondasun Higiezinaren Zergaren kuotaren gainean kalku- latuko da 2.1. artikuluko taula aplikatu ondoren ateratzen den portzentajea (kide kopuruaren arabera, Lanbide Arteko Gutxi- eneko Soldatari dagozkion sarrera guztiak kontuan hartuta).

Zenbateko osoak udaleko aurrekontuan izendatua dagoena gaingintzen duenean, kopuru osoaren muga horretaraino propor- zionalki banatuko dira.

2. Dirulaguntza zehazteko bizikidetzta-unitateko kideen ho- nako sarrera hauek hartuko dira kontuan:

A) Gizarte Segurantzak emandako pentsio eta/edo presta- zio ekonomikoren batetik lortutako sarrerak.

B) Gipuzkoako Foru Aldundiak emandako prestazio ekono- mikoren batetik lortutako sarrerak.

C) Lanbideko diru-sarrerak bermatzeko errentatik (oina- rrizko errenta) lortutako sarrerak.

D) Pasaiaiko Udalak emandako emandako prestazio ekono- mikoren batetik lortutako sarrerak.

E) Gehigarri gisa, lanerako adinean daudenen lan-etekin edo jarduera ekonomikoengatik lortutako sarrerak.

Sarrera guztien zuriketa egingo da dirulaguntzaren urteko deialdian zehaztu bezala.

### 4. artikulua. Diru-laguntza eskaerak bideratzeko prozedura.

– Eskaera-orriak aurkezteko epea urtero-urtero jakinaraziko da ohiko publizitate-bideen bitartez –dokumentazioari jarri be-

– Para la determinación del número de miembros de la uni- dad de convivencia, el artículo 9 de la Ley 18/2008, de 23 de di- ciembre, para la Garantía de Ingresos y para la Inclusión Social.

– A los mismos efectos, la información obrante en el Padrón Municipal de Habitantes a 1 de enero del ejercicio en curso, re- ferida a la vivienda en la que deberá constar empadronada la solicitante (vivienda habitual). Las variaciones producidas con posterioridad a la confección del censo, serán objeto de análisis individual. Excepcionalmente la solicitante podrá estar empa- dronada en otro lugar distinta a la vivienda por la que solicita la ayuda siempre que acredite que tiene una dependencia.

– La totalidad de los miembros de la unidad de convivencia no deberán ser propietarios de otro bien inmueble distinto de aquel para el que se solicita la subvención (se excluye de este cómputo el local destinado a trastero que se encuentre ubicado en el mismo edificio de la vivienda objeto de la solicitud).

– En caso de que haya más de un titular del bien y algunas de las propietarias no formen parte de la unidad de convivencia, el importe de la subvención se prorrateará en función del por- centaje de titularidad de los que soliciten la ayuda y formen parte de la unidad de convivencia.

– La totalidad de los miembros de la unidad de convivencia no deberán tener con el Ayuntamiento de Pasaia ni deudas ni sanciones en período ejecutivo. En todo caso, se considerará que se encuentran al corriente en el cumplimiento de sus obli- gaciones tributarias si su deuda está fraccionada con arreglo a la Ordenanza General de Gestión y Recaudación, y si están abo- nando regularmente las cuotas fraccionadas.

3. La totalidad de los miembros de la unidad de conviven- cia no deberán estar incurso en ninguna de las prohibiciones recogidas en el artículo 13 apartados 2 y 3 de la Ley General de Subvenciones. Se exceptúa de estos requisitos el apartado 13.2 e) referido al cumplimiento de las obligaciones tributarias y de la Seguridad Social debido a la naturaleza social de la subven- ción. Esta exoneración se extiende a los efectos de lo estableci- do en el artículo 34.5 de la misma ley.

### Artículo 3. Criterios para la determinación de las subven- ciones.

1. Sobre la cuota del Impuesto sobre Bienes Inmuebles se calculará el porcentaje que resulte de aplicar la tabla del artícu- lo 2.1 (en función del número de miembros respecto de los in- gresos totales referidos al Salario Mínimo Interprofesional).

Cuando el importe total exceda del consignado en el presu- puesto municipal, se prorratearán hasta el límite del mismo.

2. Para determinar la subvención se tendrán en cuenta los siguientes ingresos de todos los miembros de la unidad de con- vivencia:

A) Ingresos obtenidos por algún tipo de pensión y/o pres- tación económica de la Seguridad Social.

B) Ingresos obtenidos por algún tipo de prestación econó- mica de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

C) Los ingresos obtenidos por prestación de la Renta de Garantía de Ingresos (renta básica) de Lanbide.

D) Ingresos obtenidos por algún tipo de prestación econó- mica del Ayuntamiento de Pasaia.

E) Adicionalmente quienes estén en edad laboral los ingresos obtenidos por rendimientos de trabajo o actividades económicas.

La justificación de todos los ingresos se realizará de la for- ma en la que se determine en la convocatoria anual de la sub- vención.

### Artículo 4. Procedimiento para la tramitación de las solici- tudes de subvención.

– El plazo para la presentación de instancias se dará a cono- cer cada año por los medios de publicidad habituales –indican-

har zaion erreferentzia-data ere zehaztuko da-. Ez da izango epea luzatzeko aukerarik, non eta epe horretan gaixorik edo ospitaleratuta egon dela behar bezala justifikatzen ez den. Oro har, martxoan izango da.

– Dirulaguntza eskatu nahi duten zergadunek eskaera-orria aurkeztu beharko dute horretarako izendatzen diren udal bulegoetan, diru-sarrera guztien egiaztagiriekin batera (3.2 artikulua), dirulaguntzaren urteroko deialdian zehaztu bezala. Hala-ber, eskaeran jaso behar dute diru-laguntza dagokion ordainagiariaren ordainketari endosatzea nahi dutela.

– Agiriak aztertu eta egiaztatu egingo dira eta, entzunaldia-ri izapidearen bitartez, aukera emango zaie interesdunei ego-ki deritzotena adierazteko, eta horren ondoren proposamena egingo da, 2.1. artikuluko taula aplikatuta ateratzen diren zen- batekoak ordain daitezten.

– Ebazpenaren jakinarazpena ezarrita dauden legezko ba- liabideak erabiliz egingo da.

– Dirulaguntza zuzenean ordainagiriari aplikatuko zaio, eta ordainketaren egiaztagiria ohiko posta bidez bidaliko da.

Zerga hau helbideratuta duen zergadunari ohiko datan kon- tutik zordunduko zaio gainerako zenbatekoa.

Helbideratuta ez badu, borondatezko ordainketa-epearen hasieran ordainagiri osoaren abisua bidaltzen zaion helbidera bidaliko zaio, batetik, egindako ordainketaren egiaztagiria, eta, bestetik, beste abisu bat, ordaintzeko falta duena errazago or- dain dezan.

*Xedapen indargabetzaile bakarra. Indargabetze arautegia.*

Oinarri hauek indarrean sartutakoan indargabetuak geldit- zen dira Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga ordaintzeko diru-la- guntzak arautzen dituzten oinarriak, Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIA- LEAN 2018ko otsailaren 13an argitaratuak.

*Azken xedapen bakarra.*

Oinarri hauek indarrean sartuko dira Toki Jaurbidearen Oi- narriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 70.2) artikuluan xedatutakoarekin bat etorritz.

Pasaia, 2021eko otsailaren 18a.—Izaskun Gómez Cermeño,  
(1048)

do la fecha de referencia de la documentación que ha de presen- tarse-, sin posibilidad de prórroga, excepto para casos de enfer- medad o internamiento en centro hospitalario durante dicho plazo y siempre que esta circunstancia se justifique debidamen- te. Con carácter general, tendrá lugar durante el mes de marzo.

– Aquellas contribuyentes que deseen solicitar la subven- ción, deberán presentar su instancia en las oficinas municipa- les que se señalen, acompañada de la justificación de todos los ingresos (artículo 3.2) de la forma en la que se determine en la convocatoria anual de la subvención haciendo constar así mis- mo la solicitud de endoso de la subvención al pago del recibo correspondiente.

– Tras la comprobación y valoración de la documentación y una vez finalizado el trámite de audiencia en el que los intere- sados podrán alegar lo que estimen oportuno, se hará propues- ta de abono de los importes resultantes de la aplicación de la tabla del artículo 2.1.

– La notificación de la resolución se realizará por los me- dios legalmente establecidos.

– El importe de la subvención se hará efectivo aplicándose directamente al recibo, y se remitirá por correo ordinario del jus- tificante del abono así realizado.

A la contribuyente que tenga domiciliado el pago de este im- puesto, en la fecha habitual se le hará un cargo en cuenta por el importe restante.

Si no lo tiene domiciliado, a la misma dirección a la que se le envía el aviso por el recibo completo a principio del período voluntario de pago, se le remitirá tanto el justificante del abono realizado como un nuevo aviso para facilitarle el pago del impor- te restante.

*Disposición derogatoria única. Derogación normativa.*

Quedan derogadas a la entrada en vigor de estas Bases, las bases reguladoras para la concesión de subvenciones para el pago del Impuesto sobre Bienes Inmuebles objeto de publica- ción en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa de fecha 13 febrero de 2018.

*Disposición final única.*

Las presentes bases entrarán en vigor de conformidad con lo dispuesto en el artículo 70.2 de la Ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de las Bases de Régimen Local.

Pasaia, a 18 de febrero de 2021.—La alcaldesa, Izaskun Gómez Cermeño.  
(1048)